AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

5297

AGINDUA, 2012ko urriaren 26koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Gloria Sánchez Martín andrea Euskadiko Lan Ikuskaritzaren zuzendariorde kargutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Gloria Sánchez Martín andrea Euskadiko Lan Ikuskaritzaren Zuzendariorde (512106/1 kodea) kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzte honek 2012ko urriaren 29tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 26a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.